



Herenegungo lurrikararen ostean erreskate lanetan aritu ziren atzo Kairon, Heliopolis auzunean ageri den moduan.

ASSOCIATED PRESS

Gurutze Gorriaren arabera mila izan daitezke Egipton hildakoak

Iturri ofizialek ukatu egin dute lurrikarak hainbeste hildako eragin dituenik

Egiptoko iturri ofizialek emandako azken datuen arabera, 450 dira astelehenean Kairo astindu zuen lurrikararen ondorioz hildako pertsonak. Gurutze Gorri eta Igitaiko Nazioarteko Federakuntzak aitazitik, hildakoak milara irits daitezkeela jakinarazi zuen atzo eta hamar mila zauritutako badirela gehitu.

KAIRO

Mamdouh Gabr, Egiptoko Igitaiako idazkariak jakinarazitako datu hauek zabaldu bezain laster ukatu egin zituen bertako Barne Ministerioak. Erakunde humanitarioak dioen biktima kopurua askoz ere txikiagoa dela adierazi nahi izan zuten agintariek Kairorotik hainbesteko hildako kopurua ez dutela zenbatu argudiatuta.

Federazioak Egiptotik datuak ezeztatzea espero zuen arren, «hildako guztiak zenbatzearekin batera kopurua zein handia izan den jakingo da» utzi nahi izan zuten garbi.

Bien bitartean, herenegungo lurrikararen eraginetik libratu ezinik izuak jota daude oraindik egiptiarrak. Bitartean erreskate taldeek gogor darraite hondakinen artean hildakoen gorpuak berreskuratzen nahian.

Astelehen eguerdi aldera

Egipto gogor astindu zuen lurrikarak behera botako eraikuntzen hondakinen inguruan jardun zuten atzo euren sendiartekoak galduriko familia askok. Erreskate lanek eta denborak aurrera egin ahala baina, bizirik irtenakorik topatzeko esperantzak gutxituz doazela jakinarazi zuten atzo Kairoko iturri ofizialek.

**IZUAK
HIL DITU
GEHIENAK**

Ezbeharraren biharra bertako Barne Ministerioak zabaldu zuenez, hildakoetarik asko eskolameak dira, lurrikarak ikastetxea behera botako zuela-koan bertatik arineketan atera eta kideek zantututa itotakoak.

Izan ere, ezbeharrak berak eragindako hildakoak ugari izan diren arren, herritarrek bereganatu zituen izuak ere egundokoak egin zituen lurrikararen ostean.

«Jendeak momentu hartan izan zuen izuak handitu egin zuen hildakoen kopurua, pertsona asko kalera ihes egin nahi zuen jende multzo izugarriak zantututa hil zen eta» azaldu zuen atzo Heliopolis auzoko ospitaleko zuzendariak.

Dardar handienak igaro ondoren ere, Kairoko herritar gehienak euren etxeetara itzultzeko beldurrez izan ziren atzo. Bigarren lurrikara handia gertatu zelakoan Egiptoko hiribu-

ruko herritar asko eta askok Kairoko zelai eta berdegunetan igaro zuten astelehen gaua.

Richter eskalan —batetik hamar bitartekoa— 5,8 maila lortu zuen lurrikararen ostean, larrialdi egoera agindu zuten gainezka dauden ospitale guztietan. Egiptoko Gobernuak gainera, alerta egoera osoa agindu zuen hiriburuan eta lurrikarak astindutako beste zenbait eskualdetan. Hosni Mubarak lehendakaria ekialdeko zenbait herrialdetan zehar egiten ari zen bidaia ofiziala bertan behera utzi eta Egiptora itzuli zen atzo.

Kalte pertsonalez gain, lurrikarak eragindako kalte materialak ere oso handiak izan dira. Eraikuntza asko guztiz txikituta geratu dira eta etxebizitza eta kale askotan pitzadura zabalak daude.

Hiriburuko auzo berrietan eraikuntza osoak etorri ziren behera. Heliopolis auzoan esaterako 14 solairuko etxea jausi zen.

**ONDARE
HISTORIKOA
KALTETUA**

Egiptoko ondare historikoak pairatutako kalteak ere ez dira makalak. Piramide eta tenplu ezagunak bere horretan geratu diren arren, hiriburuko alde zaharra oso hondatuta geratu da. Esaterako, duela mila urte baino gehiago eraikitako unibertsitate islamikoak duen mezkitako bi minareteak txiki-txiki eginda utzi ditu lurrikarak.

Iliescu Errumaniako Lehendakartzako hauteskundeetan garaile

BUKAREST

Ion Iliescuk Errumaniako Lehendakartzarako agintea hurrengo lau urtetarako bere esku izatea lortu du, joan den igandean eginko hauteskundeetan botoen % 61,4 eskuratu ondoren. Bere arerio Emil Constantinescuk % 38,5 besterik ez zituen lortu, atzo eman ziren behin-betiko emaitza ofizialen arabera.

Hauteskunde Bulego Zentralak adierazi zuenez, hautesleen % 73,2k hartu zuten parte igandean egin ziren hauteskundeetan bigarren itzulian.

Berriro hautatu duten lehendakariak atzo iragarri zuen Legebiltzar eta Gobernu berriei neurri bereziak proposatuko dizkiela sei hilabeteko epean «Errumaniatik ustekeria kentzeko». Iliescuk esan zuen lehendakari gisa ez dituela botere berezirik eskuratuko «ez litzatekeelako konstituzionala izango». Bere arabera, «Konstituzioa errespetatzeko helburua daukat, baina horrek ez du esan nahi legegile eta exekutiboari herria biolentzia eta krimenetik babesteko eskatzeari uko egingo diodanik».

Iliescuk biharko dei egin die iraileko hauteskundeetan berritu zen Legebiltzarreko diputatuei kargua hartzeko saiorako, eta ondoren ekingo diote denek Gobernu berria osatzeko lanari, lehendakari errumaniarrak adierazi zuenez.

Venezuela: kontrol militarrek argitu gabeko istiluen ondoren

CARACAS

Venezuelako Guajiran kontrol militar zorrotza ezarri dute herenegun izan ziren istiluen ondoren. Argitu gabeko tiroketa batean hiru pertsona hil eta beste 11 zauritu ziren komunikabideen arabera, Gobernuak bi hildakoen berri eman bazuen ere.

Gobernuak ukatutako «tiroketa» Carlos Andres Perezek eskualdean egiten zuen bisitaldian gertatu zen. Hasierako informazioaren arabera, indio guajira bi kamioi batetik irteten eta lehendakaria zegoen lekura tiroka hasi ziren, eta ondoren lehendakariaren bikarzainak tiroka hil zituen.

Gobernuak atentatua izan zenik ukatu egin zuen eta adierazi zuen «istilu tamalgarri» bat izan zela bi guajiro mozkorrekin. Bertsio ofizialaren arabera, ez zen atentaturik izan, bi guajiro «mozkorrek» bikarzainek eginko geratzeko aginduari jaramonik egin ez eta lehendakaria zegoen lekura hurbiltzen hasi zirenean «tiro egin behar izan zuten» Perezen bikarzainek.

Gurutze Gorriak Gazzako bulegoak itxi ditu Israelen jarreragatik

DONOSTIA

Nazioarteko Gurutze Gorriak Gazzako lerro guztian zituen bulego guztiak ixtea erabaki zuen atzo, Israeleko Polizia eta Armadak bere funtzionarioei lana egitea galarazten dietelako protesta gisa, Manuel Beslar erakunde honetako zuzendariak adierazi zuenez. Iturri palestinarrek gaineratu zuten erabaki hori hartu zuela Gurutze Gorriak, Gazza erdian dagoen bulego

zentrala setiatuak daukatelako segurtasun indarrek eta ez dietelako bertako langileei lanera sartzen uzten.

Bestalde, Israeleko espetxeetan dauden preso palestinarrek, atzo bertan behera utzi zuten egiten ari ziren gogose greba, «bake negoziaketetan traba gisa erabil ez dezaten agintari israeldarrek». Hala ere, negoziaketa saio berria amaitu bezain laster berriro ekingo diote gogose grebari.